



## Jakin filosofatzen

### «Zer garen bainoago, zer egiten dugun da gakoa»

Jone M. Hernández García

◊ Ikasgelan zaude, dozenaka gazte aurrez aurre. Zer ikusten duzu?

Euskal Herriko hainbat tokitatik datozen gazteak, uste ohi dena baino heterogeneoagoak. Gizartearen trazak sumatzen ditut euren bitartez eta, hein batean, nire belaunaldiaren lorpenak eta hutsuneak.

◊ Bana esango?

Lorpena, askotariko ikuspegi kritikoei egindako irekiera; eta paradoxikoki, hutsunea, autokritika egiteko zailtasunak.

◊ Bada unibertsitatera heldu zinenean pil-pilean zen eta apaltzera egin duen eztabaidarik?

Garai batean unibertsitateak eztabaida gune gisa zuen protagonismoa apaldu dela esango nuke. 1980-1990eko hamarkadetan, EHU ere *egiten* ari zen, eta unibertsitate eredu bera zen eztabaidagai askotan.

◊ Zerk irauten du berdin-berdin?

Ikasturte berri bakoitzaren hasieran ikasleek, euren presentziak, dakarten energiak. Niretzako urtea hor hasten da.

◊ Antropologiak eman dizun irakaspen bat?

Pausa. Arreta gertakari edo egoera batean jartzea eskatzen du, eta horrek bizitzarako ere jarrera bat eman dit.

◊ Eta zehazki antropologia feministak eman dizuna?

«Gorputz bat baino ez gara», dio Mari Luz Estebanek; neurri batean, kimika hutsa. Horren gainean dena eraiki eta deseraiki daitekeela ikasi dut feminismoarekin. *Esentzian* zer garen bainoago, zer egiten dugun dela gakoa, norbanako zein kolektibo modura.

◊ Marina Garcésen ideia bat: «Mundu garaikidea erradikalki antiilustratua da. Gure inpotentzia garaikideak izen bat dauka: analfabetismo ilustratua. Dena dakigu, baina ezin dugu ezer egin».

Bai uste dugula dena dakigula... Aldiz, antropologiak ezjakintasunetik abiatzea eskatzen du. Bidean jakin-min bera duen norbaitekin topoginez gero, egin daitezke gauzak, txikiak badira ere.

◊ Garcés berriz: «Gertakariak kontsumitzen ditugu, informazioak, jakintzak... baina ez dute esperientziarik sortzen eta esperientzia da eraldatzen zaituena».

Esperientziaren garrantzia antropologiatik ere nabarmentzen da, baina egun edonork –merkatuak– esperientziak saltzen ditu eta guk erosi. Etengabeko esperientzia berrien bila aritu gaitezke, baina benetan horiekin blaitu gabe. Aukera gutxi ikusten dut hor eraldaketarako.

◊ Eta non ikusten duzu?

Ondo egindako ikerkuntzan eta ondo transmititutako ezagutzan; eta kulturen, arteen.

◊ Bereziki inspiratzaile zaizun kulturgilerik, mugimendurik?

Egunerokoan, gertuko ikerketa kideak, antropologo feministak nagusi. Kulturen, bertsolaritzan interes handia dut, eta gero nire kulturena dago: dantza. Koreografia bat, pentsamendu eta gorputz-testu hori, zirrargarria iruditzen zait.



Itziar Ugarte Irizar